


Irunero

Fermin Muguruza

“Nik uste dut oso umiliagarria dela denontzako hemen gertatzen ari dena”

aurkibidea

Bertatik Bertara - Txingudiko bertso eskola	4
Kalean Bai - Haurren aurrean, helduok heldu	6
Oiassotik Irunera - Kumaseko Sibilia	7
Hegazti migratzaileak	8
Ezkongaien Azoka	10
Fermin Muguruza	12
Oinatz Igos	20
Caser Residencial	22
Bertso Jarriak	23
Denbora pasak	23
Kirola - Washiken Kluba	24
Kirola - Txingudi Eskubaloia	26
Beti Gazte - Irun Futsal Gabarrari	28
Kultura	30
iGazte	31



ERREPORTAJEA: HEGAZTI MIGRATZAILEA 8



KIROLAK: TXINGUDI ESKUBALOIA 26

irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Maialen Sayans

Inprenta:
Antza

Argitaratzailea:
837 comunicaci3n y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



BEGI-BISTAN

18 CM

Urriaren 3tik 20ra 18 cm lehiaketara aurkeztu nahi diren lanak Amaia Kultur Zentroan jasoko dira.

Lehiaketaren VI. ediziorako aukeratutako gaia "Kaleidoskopio/Aniztasuna" da.

1.100 M2

Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi du Oñaurreko haur jolasen eremuan estalkia egikaritzeko lanak kontratatzea.

Guztira, 1.100 m2 inguru estaliko dira espazioa berregituratu eta erabiltzaileei eguraldi txarretik babesteko beharrezkoa duten estalkia eskaintzeko.

% 95EKO OKUPAZIOA

Hotel eta establezimendu turistikoek okupazioa % 95ekoa izan da aurtengo udan Irunen.

Uztaila % 83ko okupazio tasarekin itxi zen, baina abuztuan establezimendu asko "beteak" egon dira hainbat unetan.

2.178.000 EURO

Udalbatzak aho batez 2.178.000 euroren kreditu aldaketa onartu du hiru autobus elektriko berri eta dagokien karga sistema erosteko.

Kontratu berriari esker, guztira, hamaika autobus elektriko izango ditu Irunbusek, eta, behin guztiak zerbitzua eskaintzen hasita, eguneroko zerbitzua ematen duten linea guztiak izango dira elektrikoak.

725 ORDU

Itzulera Operazioan Irun ez blokeatzeko funtsezkoa izan da hiriko sarreretako toki estrategikoetan udal agenteak kokatu izana zirkulazioa bideratzeko eta lehentasuna Irun aldera zetozen ibilgailuei emateko.

Guztira, agenteek 725 ordu egin zituzten zeregin horretan eta ibilgailuak desbideratzeko eta/edo sarrera debekatzeko 81 kartel eta zirkulazioa erregulatzeko 75 kono jarri ziren.

1,5 MILIOI EURO

2024ko Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesu orokorrean, 16 urtetik gorakoek parte har dezakete, eta Irungo gazteentzako prozesu espezifikoan, 16 urtetik 30 urtera bitartekoek.

Irungo herritarrek, prozesu orokorrerako 1,3 milioi euro eta gazteentzako atalean 200.000 euro bideratuko dituzte.



SALMENTA-ALOKAIRUAK - PROMOZIO BERRIAK - AHOLKULARITZA

Beraketa kalea, 17 | (+34) 943 64 64 12 | info@inmobiliariaolaizola.com
20302, Irun | www.inmobiliariaolaizola.com



90.5 / 89.7 FM



BERTATIK BERTARA

HASI BERRI DEN IKASTURTEAN BERTSOETAN ARITZEKO AITZAKIARIK EZ

Metrika, lerro eta silabekin jostatuz gozaten dutenek Irunabarren edo Txingudiko bertso eskoletan topatuko dute beren pasioa garatzeko aukera. Urriaren hasierarekin batera ikasturte berriari ekingo diote, eta kuxkuxeroek ere izango dute bertsolaritzaren zirrikituak deskubritzeko parada. Igauri Lopetegik eta Adrian Arrutik datorren ikasturtean zehar eskualdean bertsotan aritzeko hainbat aukera daudela azaldu dute.

Noiz eta nola emango diozue hasiera ikasturte berriari Txingudiko Bertso Eskoletan?

Igauri: Bertso eskolak urriko lehen astean hasten dira lanean. Guztira, eskualdean bost bertso eskola ditugu. Batetik, haur eta gazteen bertso eskola. Hasiberrientzako ere baditugu eskolak, hau da, bertsoekin jostatzen hasteko eta bertsoak nola egiten diren ikasteko taldeak dira, idatzizko bertsogintzan ikasten hasten direnak. Bat-bateko bertso eskolan berriz, jada hasiberriak ez direnak eta oraindik beren kabuz aritzeko moldatzen ez direnak aritzen dira. Bestetik, bertso tailerrek bertsolaritzarekin loturiko hainbat ekimen antolatzen dituzte ikasturte osoan zehar, esaterako, Bertso Eskolen Eguna, Bertso Mendariak, omenaldiak, kantaldiak, etab. Horretaz gain, Adrianek eta nik Jaizubian bat-bateko bertso eskolan ikasle bezala parte hartzen dugu.

Aurtengo ikasturtera begira ba al duzue berrikuntzarik?

Adrian: Berrikuntzarik bere horretan ez. Urtero bezala 5 bertso eskola horiek eskaintzen ditugu. Aurtengo ikasturtearen berezitasunetako bat izan daiteke ikaslearen eskaerara guztiz moldatzen garela. Beharrezkoa balitz ikaslearen profilaran arabera bertso eskola bat diseinatuko genuke. Hortaz, bertsotan aritu, bertsoaren sorkuntza nola egiten den ikasi edo epaile lanetan edo gai jartzailen lanetan aritzeko interesa eduki dezakeen abagunea izango du horretarako. Hori guztia bertso tailerretik abiatu izan dugu orain arte. Iaz ere bertso jarriekin loturiko zenbait ikastaro izan ditugu. Beraz, Txingudiko

“Azken batean, bertsoa jendearekin konektatzen zaituen zerbait da”
Igauri Lopetegik

Bertso Eskoletan eskaintzen ditugun 5 bertso eskolez gain, Irunabarrek ere beste zenbait tailer eta ikastaro eskaintzen ditu.

Indartu beharreko talderik duzue edo, aitzitik, goratzen ari den baten bat?

Adrian: Egia da urte dezente daramatzagunon bertso eskola zahartzen ari dela eta geroz eta handiagoa dela. Jaizubian Irun, Hondarribia eta Hendaia inguruko jendea elkartzeaz gain, urrutia egiten datozen kideak ere baditugu. Nahiko talde txukuna dugu, baina bertsoa transmisioan oinarritzen den neurrian, gustatuko litzaiguke jende gazteagoa ere erakartzea. Hori lortzeak esan nahiko luke osasuntsu gaudela. Bertsozale elkarteek eskola arruntarekin hitzartuta dute bertso eskolak emateko aukera eta horien bidez ikasle berriak iritsiko balira asko poztuko ginatke.

Argazkia: Bertso saio musikatua Landetxa-Kateko jaietan (Iturria: Irunabar). ↓



Igauri: Garrantzitsua da transmisio hori mantentzea eta gu baino gazteagoak direnengana iristeko aukera izatea, erreleborik gabe ez geratzeko. Oraingoz arazo hori ez dugu. Guri komeni zaigu eskoletan abiatzen diren ekimen horietatik ikasleak saltoa egitera animatzea eta pixkanaka horiek ere bertsolari bilakatzea. Erreleboa baino gehiago, belaunaldi berriak horretan ari gareno batzea gustatuko litzaiguke.

Nahiz eta ikasturtea hasita egon, egingo al diezue kide berriei tokia?

Adrian: Irunabarrek eta Txingudiko Bertso Eskolek ez dute sekula aterik ixten. Ikasturteak hasiera eta bukaera bat du, baina horrek ez du esan nahi hasieratik hasi ez denak datorren urtera arte tokirik izango ez duenik. Beti funtzionatu izan dugu horrela. Makina bat aldiz ikasturteak kide gutxiarekin hasi ditugu eta gerora bertso eskola hori txukundu egin da. Bai jende gehiago gerturatu delako edo ikasleek beren ingurua animatu dutelako. Udararen ere elkartzeko ohitura izan dugu beti, bertso eskolan bereziki ostegunero jarduteko, eta horrek ere ez du etenik.

Eskolez gain, bertsolaritza sustatzeko hainbat ekintza antolatzen dituzue.

Igauri: Bai. Azken batean, bertsoa jendearekin konektatzen zaituen zerbait da, komunikazioa bertsolariaren eta publikoaren artean gertatzen baita. Hori jakinda, gure jardura ezin da mugatu bertso eskolek bakarrik eta, hein batean, ateak zabalik izatera behartzen gaitu. Jendea bertsoak entzunez parte-hartzera animatzen da. Bertso eskolak ikastaro bat baino zerbait gehiago dira, titulu edo emaitza zehatzik bilatu ordez, jostatzeko ekimenak dira. Gu kanpora begirako ekimen horiek eginez jostatzen gara eta jostatu nahi duen oro ere gurekin aritzera gonbidatua dago.

Adrian: Guk ere gure beharrak asetzen ditugu maiz jende aurrean, izan urtetan Kabigorri edo Muaran egin ditugun bat-bateko saioekin edo eskualdeko beste eragile edo jai

batzordeek eskatutako bertso saioekin. Iruneron edo Hitzan hileroko bertso sortak argitaratzen ditugu. Irisgarritasun hori badugu eta gure jendeaurrekotasunarekiko premia horrela asetzen dugu. Eskatzen dutenaren arabera ere ematen saiatzen gara. Hamaika ekimen ezberdin daude. Bertso saio musikatueta ere murgildu ginen orain dela urte pasatxo eta horrek ere ez du etenik. Ari gara honezkeroko beste zenbait eragileekin etorri daitezkeen beste ekimenak lantzen. Beraz, irisgarritasun hori beti egon da eta egongo da.

Ikasturte hasierarekin helburu zehatzik markatu diozue zuen buruari?
Igauri: Helburua da jendea sartu den bezain kontent edo are pozago ateratzea. Honetan arituz beti maila hobetzen da, baina hasierako helburua ez du zertan hori izan behar. Bakoitzak bere helburu propioak izan ditzake. Adibidez, agian batzuei bertsoak hobeto ezagutzea interesatzen zaie, besterik gabe. Askotariko taldea izatea eta bertan bakoitzak bere nahiak izatea ona da. Izan ere, gure barne helburuetako bat talde osasuntsuak izatea da, gure buruari helburu finko eta esturik markatu gabe. Helburuak zifran arabera neurtu ordez, etortzen direnak eta irakasleak pozik badaude, nire ustez behintzat gure helburua lortu dugu.

Adrian: Guk guregana gerturatzen den oro goxatzea eta, horrekin batera, berak ere gozatzeko da gure helburua. Gure saioak doakoak dira eta ez dugu inolako matrikulazio ekonomikorik eskatzen. Beti ahalegintzen gara egon daitezkeen ikaslearen arabera programa bereziak egiten, beti ere, goxotasun eta erosotasun baten barruan. Hori da gure helburu bakarra, ez dago besterik.

“Bertsoa transmisioan oinarritzen den neurrian, gustatuko litzaiguke jende gazteagoa ere erakartzea”
Adrian Arruti

Bidasoa Formación
HIZKUNTZAK (INGELES, FRANTSES, EUSKARA) | ESKOLA LAGUNTZA
TALDE TXIKIAK ETA BANAKAKO KLASEAK | MATRIKULA DOAN
Eliza Kalea 4 (San Juan plazan) | (+34) 688 88 95 47 | info@bidasoaformacion.es | www.bidasoaformacion.es

aiadek
Pinturen fabrikazioa
KALITATE GORENEKO PRODUKTUA - PRODUKTU IRAUNKORRAK - KOLOREEN ERREPLIKAN ZEHAZTASUNA
PROFESIONALAK - PARTIKULARRAK - BANATZAILEAK
Gabiria kalea 60-62. Ventasko Industrialdea | (+34) 943 63 39 46 | www.aiadek.com

“HAURREN AURREAN, HELDUOK HELDU” AKTIBAZIO EKIMENAK HELDUAK EREDU BIHURTUKO DITU URRIAN 10 EGUNEZ

“Haurren aurrean, helduok heldu” aktibazio ekimenaren helburua da hizkuntza praktikak aldatzea eta, era berean, euskara gehiago erabiltzea. Horretarako, helduak eredu izatea bilatzen da, hau da, guraso eta bestelako hezitzaileen arteko hizkuntza ohiturak aldatuz haurrentzat adibide izan daitezten. Hori dela eta, urriaren 19tik 29ra helduei euren arteko euskara erabileran eragiteko eta umeekiko eredu garrantzitsua bultzatzeko ekintzak proposatuko zaizkie.

Eredu lanketa

Beraz, “Haurren aurrean, helduok heldu” egitasmoak bi helburu nagusi ditu. Batetik, helduen arteko hizkuntza portaeretan eragitea eta euskararen erabilera areagotzeko aktibatzea. Bestetik, helduen hizkuntza ohiturek umeengan duten eraginaren kontzientzia piztea, eta, ondorioz, hizkuntzari dagokionez erudugarri izatea.

Urriaren 10 egunez, Euskaltzaleen Topagunetik baliabideak eman eta ekintzak proposatuko zaizkie helburu horiek lortzeko. Zeregin horretan sentsibilizazioa, ahalduntzea eta saretzea funtsezkoak izango dira. Sentsibilizazio kanpaina bat gauzatuko da, hainbat ekintza antolatuz euskaraz lasai aritzeko espazioak sortzeko. Horrela, aldi berean, 12 urtetik beherako haur eta gazteekin harremana duten helduen aktibazioa sustatzea bilatzen da.

Gainera, ez da ausaz aukeratu ekimena urriaren 19tik, ostegunetik, urriaren 29ra, igandera, egitea. Hots, ikasturte berriko dinamika abiatuta dagoenean, ekimenak proposatzen duen dinamika ikasturte osoan ahalik eta eragin handiena izatea espero da. Ekimen honek txinparta pizgarri izan nahi du, ikasturte hasieran, gurasoen arteko euskarazko hizkuntza praktikak indartu daitezten hurrengo aste eta hilabeteetan.

Lurraldeari dagokionez, Euskaltzaleen Topagunetik ariketa Euskal Herri osoan egitea proposatu du, baina herri batzorde eta eragileen inplikazioaren arabera, eragin maila desberdina izango du ekimenak herrietan. Herriaren eremu osoan eragin edo eremu jakin batzuk lehenestea ere erabaki lezakete herri batzordeek: hala nola, auzo batzuetan soilik egitea, eskola jakin batzuekin lankidetzan aritzea, eta abar.

Eremu fisikoei dagokionez, nagusiki, helduak eta umeak elkartzen diren inguru informalak aukeratuko dira lanketarako. Parkeak, eskola kanpoaldea, plazak, etab. Baita ekintza bereziak antolatzen diren espazioak ere. Kaleko espazioez gain, ekimena etxeetara ere iristea lortu nahi da.

Ekimen honen barnean Irunen egingo diren ekintzen informazio gaurkotua Irunero aldizkariaren [bertsio digitalean](#) jasoko da, hau da, webgunean eta aldizkariaren sare sozialetan.



KUMASEKO SIBILA

Antzinaroan gizakien eta jainkoen arteko erlazioa oso hertsia zen eta elkarren arteko komunikazioa bermatzeko orakuluak zeuden. Garai hartan garrantzitsua Delfosekoa zen, baina boteregune hau Grezian kokatzen zenez, [Erromatarrek](#) beren tradizioan Kumaseko Sibila eta berak ekarritako iragarpen liburuen tradizioa sortu zuten.

Pertsonaia honen jatorria misteriozkoa da, baina badaukagu hura azaltzen duen mito bat. Mitoaren arabera, Kumaseko Amalteak, bederatzi liburu bidali zizkion Tarquinio Prisco erregeari, urrezko hirurehun txanpon eskatuz. Erregeak, prezio handia arbuatuz, barre egin zion emakumearen eromenari, eta hark hiru liburu erre zituen erregearen aurrean. Jarraian prezio bera eskatu zuen gainerakoek truke. Tarkinok emakumearen eromena handituz zihoala pentsatu zuen, eta hark beste hiru liburu erre ondoren berriro prezio bera eskatu zuen. Azkenean erregeak iritzia aldatu eta gainerakoak erosi zituen urrezko hirurehun txanponen truke. Kondairak dio idatzi hauek Erromaren etorkizuna gordetzen zutela eta, beraz, igarpen oro egiteko liburu hauek kontsultatzen ziren.

[Antzinaroko iturriek](#) ez dizkigute Sibilar zuzenean eginiko kontsulta asko erakusten, aldez, berak ekarritako Liburu Sibilinoen kontsultak ohikoak ziren. Liburuak quindcemviri taldearen esku geratu ziren. Quindcemviri taldea, hamabost gizonen osaturiko apaiz taldea zen, senatuari men egiten zioten eta Liburu Sibilinoak gordetzeaz gain, kanpoko jainkoen gurtza ikuskatzen zuten. Honela erabaki zezaketen ea horien kultu publikoa onartzen zen edo ez. Esan daiteke, talde honek kontrolatzen zuela estatuak kanpoko zein kultu onartzen zituen, eta zeintzuk ez.

Honela, Delfoseko orakuluaren itxuraz baliatu ziren bera bezalako pertsonaia bat sortu eta botere iragarpen erlijiosoan ahalmena estatu testuinguru batean mantentzeko. Liburu hauek Bigarren Gerla Punikoetan asko erabili ziren Anibalen elefanteen arrisku latzari aurre egiteko. Baina bi ahoko armak ziren. [Erromako](#) patua idatzia zuteneguz, gobernuak krisi garaietan jarraitu behar zuen bidea erakusten zuten. Baina, ondorioz, Liburuei kontsulta bat egiten baldin bazitzaie, gobernuak Erroma krisi garaian zegoela onartzen zuen, eta horrek, bere horretan, krisi egoera okertu zezakeen.


Hain garrantzitsuak ziren liburuak non leku sakratu batean gorde behar ziren, eta honela, K.a. 28. urtean Apolo Palatinoko tenpluan kokatu ziren, hots, igarpenen jainkoaren tenpluan.

Tenplu hau Palatino mendian kokatzen da, Augustoren etxe ondoan, honela ikus daiteke ze nolako garrantzia zuen tenpluak eta ondorioz baita liburuek ere.

Orduan, gailendu al zitzaion Sibila hau bere liburuekin Delfoseko orakulari? Erromatarrek Delfoseko Pythiari kontsultak egiten jarraitu zuten, naiz eta Liburu Sibilinoek garrantzi handia hartu zuten haien gizartean. Beraz, ziur aski ez da zuzenean bata bestea baino garrantzitsuagoa ote zen erabakitzea, iturriek erakusten digutenez biek elkar osatzen baitzuten. Hori bai, Erromatar estatuarentzako Liburu Sibilinoek garrantzi itzela izan zuten botere erlijioso eta orakuluaren iragarpenak zentralizatzeke.

Andde Berasategui Goñi

Argazkia: Miguel Angelen “Kumaseko Sibila” Kapela Sistinoko margoetan, XVI. Mendea, Roma. <https://commons.wikimedia.org/wiki/File:CumaeenSibylByMichelangelo.jpg> ↓



C.D. SAN MARCIAL - 2023 - 2026 BABESLETZA

TALDEAREN **FUTBOL EGOKITUAREN** ETA **OINARRIZKO FUTBOLAREN** PROIEKUAN KOLABORATU
ENPRESA BAT BADUZU ETA KLUBAREN FAMILIAKO KIDE IZAN NAHI BADUZU, **ZURE ZAIN GAUDE!**

#GOAZENSANMARCIAL

Ama Birjinia Mirarietakoa Kalea 7, Irún | 943 96 99 12 | patrocinios@cdsanmarcialirun.com



BISITAK DITUZUNEAN IPARRA-TXIKI BERRI DA ZURE AUKERA!

4 LOGELA ZABAL BAINUGELA PRIBATUAREKIN

Garaiar kalea 11, Irún | (+34) 688 72 85 54 | paxioenea@gmail.com

HEGAZTI MIGRATZAILEEN BIDAIA ZIRRARAGARRIAN GELDIALDI BAT

Urriaren 14an Hegazti Migratzaileen Eguna ospatzen da. Ospakizun horrek harreman estua du Ekoetxea Txingudin egiten duten lanarekin. Hain zuzen ere, hegazti askok Txingudiko hezeguneak aprobetxatzen dituzte bidean etenaldi bat egiteko, migratzen ari diren bitartean. Eca Montoya Ekoetxea Txingudiko koordinatzaileak eta Paul Ortuzar ingurumen hezitzaileek prozesu natural honen bitxikeriak azaldu dituzte.

Ekoetxea Txingudiren jarduerak lotura zuzena du urriaren 14an ospatzen den Hegazti Migratzaileen Egunarekin, ezta?

Eva: Hegazti Migratzaileen Eguna urtean bitan ospatzen da, maiatzean eta urrian, hegaztiak urteko garai horietan egiten dituzten bi bidaietan bat eginda. Aurten goiburua ura izango da, hegaztien bizitzaren euskarria baita eta hegaztiak behar dituzten ekosistemak, batez ere ur ekosistemak, kontserbatzearen alde egingo den kanpaina bat izango du ardatz. Ekoetxea Txingudi Plaiaundin dago eta Plaiaundi Txingudiko paduren atal bat denez horrelako naturaguneak eta ekosistemak kontserbatzeko guk ere parte hartu nahi dugu biztanleriari zuzendutako esperientziekin.

Urteko zein garaitan gertatu ohi da migrazioa?

Paul: Batez ere, udazkenean eta udaberrian. Kasu honetan, uda bukatzean dago, baina udazkenean gaudela kontsideratzen dugu, hegaztien ikuspuntutik bidaia hasi delako. Egunaren arabera hegazti gutxiago edo gehiago ikusi ahal izango ditugu. Haizeak garrantzi handia du prozesu honetan. Izan ere, ipar haizeak migrazioa laguntzen eta bizkortzen du, hegaztiak esfortzu gutxiago egin behar baitute bidaian. Aldiz, hego haizea nabarmentzen denean, hegaztiak geldialdia egiteko aprobetxatzen dute.

Migrazioan nolako espezieak igarotzen dira hemendik?

Paul: Migrazio garaian denetarik ikusi dezakegu. Jende askok zikoinak ezagutuko ditu. Bitxikeria moduan, Lapitze inguruan hegaztiak jarraitzen dituen jendea dago eta irailaren 15ean 350 zikoina inguru behatu ziren inguru horretan. Kontutan

hartu behar dugu Europako iparraldean hotz egiten hasi dela. Horrek janariaren murrizketa dakar eta hegaztiak beste toki batera mugitu behar izatea eragiten du. Mokokabalak ere protagonistak izan ohi dira, beren itxurarengatik eta elikatzeke duten moko zabalagatik. Jendearen arreta

erakartzen dute. Taldean mugitzen dira normalean eta erraz identifikatu daitezke.

Zein izan ohi da hemendik igarotzen diren hegaztien helmuga?

Paul: Espeziaren arabera. Batzuk Andaluzia inguruan jada eroso daude eta bertan gelditzen dira. Enarek adibidez, Saharako desertu guztia zeharkatzen dute eta kilometro asko egiten dituzte migrazioan. Beste batzuk kostaldetik egingo dute bide hori. Gibraltarko itsasartetik pasa ostean, Maroko, Mauritania,



“Uda bukatzean dago, baina udazkenean gaudela kontsideratzen dugu, hegaztien ikuspuntutik bidaia hasi delako”

Paul Ortuzar, ingurumen hezitzailea Ekoetxea Txingudin



ZURE TABERNA IRUNGO ERDIGUNEAN
GOSARIAK - BAZKARIAK - AFARIAK

Zabaltza plaza 8 | (+34) 943 02 06 24

Senegal eta Ginea Bissau inguruko hezegune handietara iritsiko dira, Euskal Herri osoaren tamainako azalera duten hezegunetara.

Hegaztien migrazioaren bitartez eskuratu al daiteke

beste hainbat gairen inguruko informaziorik?

Paul: Espezie bakoitzaren kasuan patroia eta bidea ezberdina da, batzuek gauze eta besteek egunean zehar migratzen dute, taldeka edo banaka. Aurten jaio direnek ez dute esperientziarik eta bidea bakarka egiten badute, adibidez, arrano arrantzaleek, bidetik desbideratu eta bidean galdu eta hil izan direla ikusi da. Naturaren legeak dioen bezala, indartsuenak jarraitzen du aurrera.

Azken urteetan zehar migrazio prozesuan aldaketa esanguratsurik nabaritu duzue?

Eva: Aldaketa klimatikoaren ondorioz, gero eta lehenago gertatzen da prozesu hau. Lehen iraila eta urria migrazio garai nabarmenak ziren bitartean, orain espezie batzuk abuztuan hasi dira migratzen.

Paul: Datu zientifiko zehatzik egon ez arren, patroiak apurka-apurka aldatzen ari direnaren sentsazioa dugu. Udaberria ere geroz eta lehenago hasten da eta udazkenearen bukaera ere luzatu egin da. Hori guztia janariaren eskuragarritasunean nabaritzen da eta migrazioa aste pare bat lehenago edo geroago gertatzea baldintzatu dezake.

Plaiaundi bezalako hezeguneak lagungarriak al dira hegaztientzat etenaldi bat egiteko?

Paul: Hegaztientzat Plaiaundi bezalako hezeguneak gure gasolindegia bezalakoak dira. Milaka kilometroko bidaia horretan atseden hartzeko tokiak behar dituzte energia berreskuratzeko. Plaiaundi eta Jaitzubiako inguruak eta Bidasoko uharteak bidaia horretako gasolindegia dira, lasai jan eta lo egiteko aukera ematen baitiote. Etenaldietan pisua irabazten dute, bidaian zehar ahaleginaren ahaleginez galduko duten pisua.


Zer aholku emango zenizkiokete migratzen ari diren hegaztiak ikusi nahi dituztenei?



↑ Agazkia: Mokokabalak hegan (Iturria: Ekoetxea Txingudi)

“Aldaketa klimatikoaren ondorioz, gero eta lehenago gertatzen da prozesu hau”

*Eva Montoya,
Ekoetxea Txingudiko
koordinatzailea*



↑ Agazkia: Arrano arrantzalea arrainarekin (Iturria: Ekoetxea Txingudi)

Paul: Orain horretarako garai ona dela esango genieke. Ekoetxea Txingudin gure lana Plaiaundiko eta hemen inguruan ditugun babestutako eremuen informazioa ematea da. Horretarako, prismatikoaren alokairua eskaintzen dugu, hegaztiak identifikatzeko gida eta hainbat esperientzia proposatzeaz gain. **Eva:** Jendea hona hurbildu eta paseo bat emanez lasaitzera gonbidatu nahiko genuke. Naturaguneaz gozatzeko aukera izango dute eta momentuaren arabera hegazti gehiago edo gutxiago ikusi ahalko dituzte. Orain justu garai aproposa da horretarako.

Gizakiok lagundu edo oztopatu al dezakegu hegaztien migrazioa?

Eva: Gureak bezalako naturaguneak ezagutzea ondo dago, baina horiek maitatzea eta zaintzea ezinbestekoa da. Ekoetxea Txingudin eskaintzen ditugun esperientziei esker, inguruneari balioa ematen diogu eta mezu koherenteak eman nahi dizkiegu herritarrei haien portaerak eta egunerokotasunezko ohiturak hobetzeko eta bizi dugun gaurkotasa eraldatzeko.

Zer ekintza antolatu dituzue Hegazti Migratzaileen Eguna ospatzeko?

Eva: Kasu honetan, Hegazti Migratzaileen Egunarekin loturik, urriaren 14an, larunbatean, Gorka Gorospe ornitologoarekin ibilbide bat egingo dugu goizean zehar Plaiaundin. Urteko garai honetan bertatik igaro ohi diren hegaztiak ezagutzeko eta horrelako lekuen garrantzia ulertzeko aukera emango digu. Publiko orokorrari zuzendutako ekintza izango da. Igandean, urriaren 15ean, familiei zuzendutako esperientzia izango dugu. Artean espazioko Juncal Alfonsok “Egan noa” esperientzia proposatuko du. Familia bakoitzak hegazti bat diseinatuko du bere ezaugarriekin, eta horrela Txingudirekin daukaten lotura nabarmenduko dute.

Non eskuratu daiteke Ekoetxea Txingudin antolatzen diren ekintzen inguruko informazioa?

Eva: Informazio guztia gure webgunean daukagu, ekoetxea.eus. Esperientzia guztiak doakoak dira, baina aurretik izena ematea ezinbestekoa da.

Paul: Sare sozialetan ere presente gaude, hau da, Facebooken, Twitterren eta Instagramen.

EZKONTZA BAT OSPATZEKO BEHARREZKO GUZTIA FICOBAN AURKITUKO DUZU URRIAREN 14AN ETA 15EAN

Urriaren 14tik 15era “Los muñecos de la tarta” ezkongaien azoka Ficobara iritsiko da. Azokaren VII. edizioa izango da aurtengoa eta, urtero moduan, 200 bikote inguru erakartzea espero dute. Beti bezala azokarako sarrera eta parkinga doakoak izango dira. Gainera, bisitariak beren datuak online erregistratzeko aukera izango dute azokaren webgunearen bitartez. Fernando Vergara azokaren antolatzailea da eta 2023ko azokaren berrikuntzak azaldu ditu.

Nola ekingo diozue ezkongaien azokaren VII. edizioari?

2024a ezkontzen urte ona izango dela uste dugu, beraz, bikote asko joan beharko lirateke azokara.

Hainbeste edizioaren ondoren, esan al daiteke eskualdean eta ezkontza sektorean finkatutako hitzordua dela “Los muñecos de la tarta”?

Bai, hala da, eta ez bakarrik eskualdean, bertan egiten baita azoka, Gipuzkoa mailan ziarra dezakegu gurea ezkongaien azokarik ezagunena dela.

Hasi zinetenetik, uste duzue ezkontzen mundua asko aldatu dela orain arte?

Ezkontzak, bizitza bezala, aldatu egiten dira. Orain bikoteek gauza asko begiraten eta aztertzen dituzte ezkontza bat prestatzerakoan eta, gehiengoa, ezkontza desberdin bat antolatzen saiatzen da. Gaur egungo ezkontzetan gauza desberdin asko ikusten dira duela 15 urteko ezkontzekin alderatuz, adibidez.

Azokaren aurreko hilabeteetan lan asko pilatuko da. Azken prestakuntzak amaitzen ari zarete, ezta?

Egia da, azokaren aurreko hilabetea gogorra da, dena kitatu behar duzue, azoka arrakastatsua izan dadin, bai bertaratzen diren bikoteentzat, bai erakusketarientzat.

Azoka aukera paregabea da erakusketariak beren produktuak eta zerbitzuak erakusteko?

“Gaur egungo ezkontzetan gauza desberdin asko ikusten dira duela 15 urteko ezkontzekin alderatuz”

Uste dugu azoka erakusleiko bikaina dela erakusketarientzat. Izan ere, 200 bikote inguru erakartzen ditugu urtero azokara eta horiek erakusketarien



↑ Argazkia: Estudio Gover.

standaren aurretik pasatzen dira. Hala ere, gero erakustoki bakoitzak jakin behar du aukera hori aprobetxatzen azkenean azoka bisitatzen duten bikoteek beren zerbitzuak kontrata ditzatela lortzeko.

Horrelako ekitaldi gutxi egiten direnez, jende asko biltzen da. Emango al diguzu daturik?

Lehen esan dudana bezala, urtero 200 bikote inguru igarotzen dira “Los muñecos de la tarta” azokatik. Hori da gure helburua, urtero behintzat datu hori errepikatzea, baina beti dugu jendetza handiagoa erakartzeko ilusioa.

Zer-nolako zerbitzuak edo produktuak ikusi ahal izango dituzte bisitariak azokan?

Bikoteek argazkilariak, bideografoak, emaztegaiaren jantziak, senargaien jantziak, bidaia agentziak, bitxi-dendak, DJ-ak, apaingarriak, jatetxeak eta azken kopa, gozogintza, edertasuna eta bestelako zerbitzuak aurkituko dituzte. Hau da, bisitariak ezkontza bat antolatzeko beharrezkoak diren gauza guztiak edo ia guztiak aurkituko dituzte bertan.

Azokara ezkongaiak bakarrik hurbiltzen dira edo ezkongaien senideak ere bertara hurbiltzen dira ideien bila?

Normalean bikoteak bakarrik joaten dira, eta horietako askok oraindik isilpean eramaten dute ezkontzeko asmoa dutela. Dena den bikote asko gurasoekin ere hurbiltzen dira, ezkontzaren prestakizunen parte izatea nahi dutelako.

Aurten ere webgunearen bidez hitzorduak erreserbatzeko aukera eskainiko duzue?

Aurten hitzorduen erreserba kendu ditugu, baina hala ere azokarako bisita online erregistratzeko aukera

“Urtero 200 bikote inguru igarotzen dira “Los muñecos de la tarta” azokatik”

“Bisitariak ezkontza bat antolatzeko beharrezkoak diren gauza guztiak edo ia guztiak aurkituko dituzte bertan”

mantendu dugu. Beraz, erregistroa horrela egiten dutenek, ez dute ilararik egin beharko azokaren sarreran beren datuak emateko. Online erregistroa azokaren webgunean egin beharko da.

Azoka Ficoban egiten da. Horrelako ekitalditarako kokaleku bikaina, ezta?

Horrelako ekitaldi bat egiteko lekurik onena da, zalantzarik gabe. Ficobak azoka esparru bateko erosotasun guztiak ditu eta beste leku batzuek eman ezin dizkizuten zerbitzu guztiak ditu. Adibidez, doako aparkaleku handi bat dago instalazioetan bertan, hori zoragarria da, iristea eta arazorik gabe aparkatzea.

Bisitariak positiboki baloratzen dute azokaren antolaketa bisitatu ondoren?

Ikusteko eroso den azoka bat dela esan ohi digute, erakusketariak ez baitituzte bisitariak estutzen, eta horregatik urtero zoriondu ohi gaituzte.

Zerk bereizten zaituzte sektorearekin zerikusia duten edo antzekoak diren beste ekitaldi batzuetatik?

Azoka atsegina eta oso praktikoa izatea, parafernaliarik gabe pentsatua. Ezkongaiak bisitan etortzen dira, erakusketariak ikusten eta ezagutzen dituzte eta zerbait gustatzen bazaie kontratatzen dute eta ez ditugu zozketekin zorabiatzen. Orokorrean, esan daiteke oso azoka praktikoa dela.

Zer espero duzue aurtengo ediziotik?

Espero dugu azoka arrakastatsua izatea eta bikoteek ezkontza antolatzeko behar duten guztia bertan aurkitzea.



FERMIN MUGURUZA

Fermin Muguruza, Bidasoa 2018-2023 dokumentalaren zuzendaria eta gidoigilea:

“BURUAN ETA BIHOTZEAN ETENGABE BUELTAKA GENUEN HEMEN GERTATZEN ARI ZENAREN ZARATA HORI”

71 minutu, bi data eta ibai bat. “Bidasoa 2018-2023” dokumentalak migratzaileek Europarako bidean Bidasoa ibaiaren gaineko muga zeharkatzeko dituzten zailtasunak islatzen ditu. Dokumentala Donostiako Zinemaldian estreinatu da eta urriaren 20an zinema aretoetara iritsiko da. Fermin Muguruza, dokumentaleko zuzendariak eta gidoigileak, lan honen zergatia eta helburuak azaldu ditu, bidegabeko egoera honi amaiera emateko helburuarekin.

Fermin Muguruza Ugarte

Fermin Muguruza Ugarte abeslari, musikagile eta ekoizle irundarra da. Bere ibilbide musikalean Kortatu edo Negu Gorriak bezalako taldeak mugarri garrantzitsuak izan dira. Hortaz gain, beste hamaika proiektu musikaletan ere ibilitako da, bakarka edo Iñigo eta Jabier anaien konpainian, besteak beste. Azkenaldian bere lana ikus-entzunezko errealizazioan zentratuta dago. Esaterako, azken 14 urteotan “Black is Beltza” proiektu kulturala garatu du, komikiak, pelikulak eta musika uztartzen dituena. Bere azken proiektua Bidasoa 2018-2023 dokumentala da, urriaren 20an zinemetan estreinatuko dena.

Migratzaileek Bidasoa ibaiaren muga zeharkatzeko aurkitzen dituzten zailtasunen isla zuzena da Avenida zubia, ezta?

Bai. Nik uste dut horrelako dokumentuak utzi behar ditugula gerora ere denok kontura gaitezen zein motako injustizia eraikitzen ari diren. Latzena da jada hemen izan ditugun 10 hildakoez gain, zein motatako errepresio arrazista eta kontrol benetan bidegabea ezartzen ari diren. Horregatik, garrantzitsua da gaur hemen gu biok egotea eta atzeko aldean ikustea nola dagoen dena hesiz itxita. Eta ez hori bakarrik, atzean ikusten den furgoneta hori kamuflatua dago, baina poliziarena da. Nik uste dut oso umiliagarria dela denontzako hemen gertatzen ari dena, injustua izateaz gain oraindik muga hori hor jartzea. Gainera beste gauza bat gehitu nahiko nuke. Etengabeen hemen Hendaia, Irun, Hondarribia eta Bidasoko herrialdekook esaten dugu honek bukatu egin behar duela, muga honek irekita egon behar duela. Hemen Tourraren egunean egin zigutena iseka egitea da. Bi alkateak, Hendaiakoa eta Irungoa, etortzea ona ospatzera behingoz muga irekita zegoela eta hurrengo egunean ixtea, ezin da horrela geratu, baina hor gelditu dira hesiak.

Testuinguru harrigarria da, batez ere, 2023. urtean. Hortik sortu zen dokumentala egiteko ideia?

Bai, muga ixtearena gerora etorri zen. Dokumentala egitea pentsatzen hasi nintzanean oraindik “Black is Beltza II: Ainhoa” bukatzen ari ginen eta momentu horretan lanez lepo genbiltzan. Une horretan elkartzeko genituen une bakarrak ibaiaren ertzean edo San Juan plazan protesta egiteko ziren, beste migrante bat hilda azaldu zelako hemen Bidasoan. Inpotentzia handiz elkartzen ginen geure buruari galdetuz egoera horren aurrean zer egin genezakeen. Hortik hilabete batera edo bi hilabetera beste bat eta beste bat agertu ziren hilda. Ziburun ere trenak beste hiru harrapatu zituen.

Pelikula guzti honen erdian etengabe horrelako ezbeharrak gertatzen zirela esan dezakegu. Tragedia horrek asko hunkitu gintuen. Buruan eta bihotzean etengabe bueltaka genuen hemen gertatzen ari zenaren zarata hori. Horregatik, Black is Beltza proiektuaren azken filma aurkeztu bezain laster, Belodromoan sekulako aurkezpena egin eta Iñigo anaiari dedikatu ostean, bi aukera geneuzkan. Hau da, pelikula aurkeztu ostean egin behar genuen bira osoa bukatu eta gero hastea dokumental hau prestatzen edo pelikula aurkezten genuen bitartean saiatzea grabaketak egiten, edizioa aurreratzen eta dokumentazioa biltzen. Nik nahiago izan nuen berehala lanean hastea. Azkenean, iaz “Black is Beltza II: Ainhoa” aurkeztu ostean, orain Bidasoa 2018-2023 aurkeztuko dugu. Pozik nago lortu ahal izan dugulako, hau orain kontaktu behar genuenaren sentsazioa genuelako eta edozein egunetan beste ezbeharren bat gerta daitekeelako.



↑ Fermin Muguruza Avenida zubiaren erdian, atzean muga ixten duen hesia eta zelatan ari diren polizien furgoneta ikusten delarik. Argazkia: Estudio Gover

“Hori eginez gizakiak direla eta denok gizakiak garela erakusten saiatu gara”

Esan dezakegu 2018-2023 urteen arteko epeak egun oraindik Bidasoan errealitate bat den egoera islatzen duela, ezta?

Bai, horrela mugatu nahi izan dugu 2018an hasi zelako estatu frantsesa hau dena kontrolatzen eta mugak ixten. Gero neurriak gogortu egin ziren eta mugan kontrol iraunkorrak izan genituen Avenida, Santiago eta Behobiako zubietan, Endarlatsaraino. Muga erabat kontrolatuta zegoen. Orain egoera malgutu egin dela ematen du, baina polizia guztiak hor daude kontrolatzen. Lehen polizia frantsesa zela esaten genuen, baina gero ere jakin genuen polizia espainolaren kolaborazio erabatekoa izan zutela eta migratzaileak ehizatzearen truke neurri onuragarriak izaten zituztela. Dena eskandaluzkoa da.

Guk dokumentala 2023ra mugatu nahi izan dugu orain arte hil direnei egindako omenaldia ixteko. Hala ere, horrekin ez dugu esan nahi istorio hau guztia hemen amaitzen denik, baizik eta bi urte horien arteko denboran gertatutakoaz hitz egiten dugula. Argi dugu berriro ezbeharren bat gertatzeko aukera dagoela eta bitartean poliziek hor jarraitzen dute, ehizatzen eta jazartzen, kontrol erabat arrazistak eginez, inolako justifikaziorik gabe, migranteei muga zeharkatzen ez uzteko helburu bakarrekin.

Testigantzak biltzeko garaian lagungarria izan al zaizue egunero migratzaileekin lan egiten duten Irungo Harrera Sarea eta Bidasoa Etorrinekin bezalako elkarten lankidetzak?

Dudarik gabe. Gertatzen dena da, kazetariak egiten duten dokumental eta erreportajeetatik ezberdindu nahi izan naizela. Guk sorkuntza dokumentala izenez ezagutzen dena egin nahi izan dugu, gaia beste ikuspegi batetik lantzeko. Hemen gertatzen ari zena beste era batera kontatu behar genuela pentsatu nuen eta, hain zuzen ere, hortik dator sorkuntza dokumental izena eta zinemaldietan sail horretan kokatzen dituzte horrelako ekoizpenak. Istorioa kontatzeko protagonista batzuk hartzea erabaki nuen. Zalantzarik gabe, Irungo Harrera Sarea eta Bidasoa Etorrinekin elkarteek proiektuan egon behar zuten.

Horretaz gain, beste hiru protagonista aukeratu nituen. Lehen, Gari Garaialde, migranteek muga zeharkatzeko dituzten zailtasunak eta haien sufrimendua erretratzen jakin duena. Bere lana zein izan den eta kazetaritza lan hori egiten zergatik inplikatu zen hainbeste kontatzea nahi izan dut. Bigarrena, Esoh Roméo da, Boli Kostatik etorri zena eta hemen manifestazio batean

“Hildakoei izen-abizenak jarri behar zaizkie edo zeintzuk ziren kontatu behar da, bestela zifra hotzak eta hutsak baino ez dira izango”



OPARITARAKO ZUREZKO ARTIKULU PERTSONALIZATUAK

Iparralde Hirib. 4, Irun | (+34) 638 37 38 59 | www.neskapolita.net



ZURE OSASUNA, GURE LEHENTASUNA

FISIOTERAPIA - ERREADAPTATIOA - NUTRIZIOA - PSIKOLOGIA

Hondarribia kalea, 34W | (+34) 623 00 73 21 | info@aurreraklinika.com | www.aurreraklinika.com

< Argazkia: Estudio Gover

“Hemen inguruan gai honekiko elkartasun handia egon dela ikasi dugu”


ezagutu nuena. Bere istorioa kontatu zidan, musika asko gustatzen zaiolako. Hemendik igaro den migratzaile bakoitzaren istorioa hartu eta ziur bakoitzarekin dokumental bat egin ahal izango genukeela. Esos Roméori ia bost urte kostatu zitzaion honaino iristea. Gainera bi aldiz itzuli zuten beroan gendarmeez. Irunen maitemindu egin zen, lana lortu du eta ume bat dauka. Horrela, mezu positibo bat ere zabaldu nahi izan dugu, egoera latza izan arren, tartean gauza politak gertatzen direla erakusteko. Gure etorkizuneko gizartea horrelakoa izango da: askotarikoa, multietnikoa eta multikulturala. Roméok hori guztia islatzen du bere bizitzako injustizia guztiak kontatuz, baina Bidasoan bere tokia topatu du. Azkenik, Pilar Osa, “Janela” dugu, Gineatik etorritako neska bat eta bulling-a jasan zuena eskolan. Dantzaren eta musikaren bidez ahaldundu egin da eta, beraz, zerbait positiboa ere erakusten du orain. Horiak dira protagonistak eta baita dokumentalaren hari narratiboa ere, Amets San Millán, beste lagun handi bat; bere ama Dominikar Errepublikatik etorri zen. Dokumentalean bera bizikletaz bide berdea egiten ikusiko dugu eta istorio guztia josteaz arduratuko da bere esperientzia kontatuz.

Beraz, kazetaritza erreportajea izan ordez, beste motako dokumental bat da. Gainera, hildako bakoitzaren ibilbidea gogoratzeko animazioa erabili dugu. Asko gustatzen zaidan beste gauza bat da Bidasoaldeko musikariok dokumental honi musika jarri nahi izan diogula. Horrela, Berako Petti, Oronoz-Mugaireko Olaia Inziarte, Willis Drummond, Odei raperoa, Bad Sound System, Eneritz Furyak eta nire musika ere azalduko da. Hori da, Pio Barojak esaten zuen bezala, Bidasoko Errepublikako musikariak batu gara eta pieza musikalak dokumental osoan zehar ageri dira.

Dokumentalean hildakoak aipatzea, omenaldia izateaz gain, tragedia gizatiartzeko modua izan da zure ustez?

Hori urte hauetan guztietan guztiok eta nik neuk dokumental hau egitean ikasi dudana gauza bat da. Elkartasuna jorratzen dutenek hori azpimarratzen dute. Hildakoei izen-abizenak jarri behar zaizkie edo zeintzuk ziren kontatu behar da, bestela zifra hotzak eta hutsak baino ez dira izango. Horregatik dokumentaleko protagonistekin eta migranteekin lan egiten duten elkarteekin elkartzea garrantzitsua izan da, beraien testigantzei garrantzia eman diegulako. Bestetik, dokumentala osatzeko lortu dugun dokumentazioa ere ezinbestekoa izan da. Hemen inguruan gai honekiko elkartasun handia egon dela ikasi dugu, batzuetan isilpean eta zaratarik gabe. Uste dut harro egon gaitzkeela Hendaian, Hondarribian, Irunen, eta baita Urruñan ere, Behobiako zubian Urruñarekin egiten baitugu muga,

↓ Bidasoa 2018-2023 dokumentalaren kartela



laguntzeko inplikatu den eta bere elkartasuna adierazi duen jende guztiaz. Horretaz gain, samurtasuna ere eskaini diegu, etorkinentzat oso garrantzitsua dena momentu latzak bizi izan baitituzte.

Migrante batzuk hemen geratu ziren eta guk horrenbeste maite dugun Bidasoa ibaian hartu zuten bere azken arnasa. Adibidez, dokumentalari esker hil aurretik idatzitako azken mezuak deskubritu ditugu, non gazte batek bere amari zenbat maite zuten esaten zion. Antzekoak topatu ditugu mugikorretan eta asko ukitu gaituzten gauzak aurkitu ditugu. Beraien adinaz jakin dugu, baita zein herrialdeetatik etorriak ziren. Minutu batean bakoitzaren ibilbidea laburbiltzen saiatu gara, gehigarri moduan guraso edo senideekin partekatutako mezuen zatitxo bat jartzeaz gain. Hori eginez gizakiak direla eta denok gizakiak garaela erakusten

“Egondako tokietan gai hau aipatzen nuenean inork ez zekien ezer honi buruz”

Aral
Quiromasaje

MASAJE ON BAT MEREZI DUZU

www.aralquiromasaje.com
Larretxipi Kalea 17 | (+34) 643 26 92 76

BADUA

BIZIKLETAZKO MEZULARITZA,
AZKARRA ETA JASANGARRIA

badoo@badoo.eus
Aixin Zolua Ibilbidea 5 | 722 65 36 43

lassai
Psikologa

ZERK KEZKATZEN ZAITU?

www.lassai psicologia.com
San Francisco Kalea 46 (10. lok) | 632 40 21 88

saiatu gara. Izen-abizenak dituzte, zenbait herrialdeetatik etorri dira eta hemen hil egin dira. Edo, hobe esanda, frantsesek inposatutako politika arrazistak hil egin ditu, gobernu espainolaren kolaborazioarekin.

Oinarrian arrazakeria duen arazo hau Donostiako Zinemaldira eraman duzu dokumental formatuan. Arazoari nazioartean oihartzuna ematen lagunduko du horrek?

Imajina ezazu mundu osoan zehar ibili naizela “Black is Beltza II: Ainhoa” aurkezten. 30 aurkezpen baino gehiago egin ditut estatu frantses zein estatu espainolean, filma Alemanian, Suitzan, Estatu Batuetan, Mexikon eta Kolonbian aurkezteaz gainera. Egondako tokietan gai hau aipatzen nuenean inork ez zekien ezer honi buruz. Esaterako, Madrilan bertan ere zerbaite entzuna zutela esaten zidaten, baina ezer gutxi zekiten eta ez zuten imajinatzen hainbesteko zenik. Haiek zekitena zen baten bat ibaira bota zela eta bertan ito zela, horren guztiaren atzean dagoena imajinatu gabe. Beraz, gure beste helburu bat zen dokumentalarekin Zinemaldira iristea eta ez hastea lanean orain. Hau da hemen gertatzen ari dena kontatzeko momentua eta Zinemaldira ez bairik gabe joatea. Oso berandu iritsi ginen, baina bertan egotea lortu dugu.

Estreinaldi mundiala Donostiako Zinemaldian egingo dugu eta horrek nazioartean emango dion oihartzun mediatikoa itzela da. Dagoeneko jendea berriro ere elkarrizketak eskatzen hasi da eta gaiarengatik interesa agertzen. Trailerra zabaldu dugu eta jende askoren arreta erakartzea lortu dugu. Bertan hildakoen aurpegi marrazkiak ageri dira, haien senide, guraso eta anai-arrebekin harremanetan jarri garelako eta horiek egin ahal izateko argazkiak lortu ditugulako. Bi minutuan haien bizitzak laburtuz eta jaiotze eta heriotza datak jarritz jende asko harrituta utzi dugu. Youtubean trailerrak 5.000 ikustaldi baino gehiago izan ditu eta nire Instagram kontuan ere 25.000 ikustaldiak gairitu ditu. Horrek erakusten digu lortzen ari garela dokumentalak bilatzen ari ginen inpaktua izatea. Irailaren 28an egin dugun estreinaldiarekin sekulako oihartzuna lortu dugu, mundu guztia Zinemaldira begira dagoelako.

Urriaren 20an, berriz, zinemetan estreinatuko dugu. Dagoeneko Latinoamerikan dokumentalen inguruan dagoen festibalik handienak, DocsMX izenekoak eta Mexikon egiten denak, dokumental hau sail ofizialean lehiatzeko hautatu du. Berehala, hau guztia mugitzen hasiko gara eta Zinemaldiaren ostean,

“Estreinaldi mundiala Donostiako Zinemaldian egingo dugu eta horrek nazioartean emango dion oihartzun mediatikoa itzela da”

Pontevedran egiten den beste festibal batean proiektatuko da eta aurkezpena Essoh Roméo bidaliko dugu bere bikotekidearekin batera. Ni neu ere abendura arte proiektu

hau bultzatzen saiatuko naiz eta horretarako nik daukadan oihartzun mediatikoaz baliatzen. Dena den, gustatuko litzaidake dokumentaleko protagonistek dokumentala zabaltzeko aukera izatea, beraien bizipenak kontatzeko, haiek entzutea oso interesgarria eta beharrezkoa delako.

Honen guztiaren erdian ba al duzu jada buruan beste proiekturik?

Black is Beltzaren proiektuarekin hasi ginenetik eleberririk grafikoko kaleratu ditugu, Bilbon, Bartzelonan eta Donostian erakusketak antolatu ditugu, musika kaleratu dugu, bira bat egin nuen orain dela 10 urte, etab. Beraz, dena kateatzen joan zait. 2018an lehenengo pelikula kaleratu genuen eta 2022an bigarrena. Anaiaren heriotza ere tartean egon zen eta orain arte dokumental honetan zentratua egon naiz. Egia esaten badizut, 2024a niretzat arnasa hartzeko urtea izango da eta gerora begira zein egitasmotan sartuko naizen ikusteko unea izango da. Momentuz abendura arte gelditu gabe ibiliko naiz dokumentalaren bidez jendeak jakin dezan hemen zer gertatzen ari den eta injustizia hau behingoz amaitu dadin.

↓ Argazkia: Estudio Gover



“Momentuz abendura arte gelditu gabe ibiliko naiz dokumentalaren bidez jendeak jakin dezan hemen zer gertatzen ari den”



ZERBITZU ELEKTRIKO GUZTIAK ESKURA IZANGO DITUZU

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK - NEURRIRA EGINDAKO ARGIEK AZTERKETA - DOMOTIKA ETA AUTOMATISMOAK
BIDEO ZAINTZAK ETA ALARMAK - AHOTSA ETA DATUAK - PROIEKTUAK ETA LEGEZTATZEA - MANTENTZE LANAK

mrelectricsystems@gmail.com | (+34) 669 30 23 12

OINATZ IGOSEK OSASUN MUNDUA UMEEI HURBILDU NAHI DIE IPUINEN BIDEZ

Oinatz Igosek erizain eta irakasle gisa izandako esperientziak bateratu ditu *“Mateo y el quirófano”*, bere lehen ipuina, sortzeko. Istorio honen bidez, haurrek kirofanoan sartzeko beldurra galtzea nahi du idazleak. Entretenimenduaz gain, proiektuak ongintzarekin ere badu lotura, erosleek erabaki dezaketelako zer ongintza kasurako erabiliko diren salmentaren bidez lortutako irabaziak. *Oinatz Igosek* azaldu duenez, dena iragarritakoaren arabera ateratzen bada, liburua 2024ko urtarrilean argitaratuko da.

Nola bururatu zitzaizun liburu bat idazteko ideia?

Hori guztia pandemian hasi zen, baina denbora bat neraman liburu bat idazteko asmotan. Hala ere, pandemiaren unerik gogorrean, osasungintzako profesionalak izan genuen lan guztiaren erdian, nire proiektuen inguruan hausnartzeko denbora izan nuen, besteak beste, jarraian azalduko dudana. Nire asmoa liburu edo ipuin bat idaztea zen. Zer idatz nezakeen pentsatzen hasi nintzen, eta erizain eta irakasle nintzenez, bururatu zitzaidan gai horiekin zerikusia zuen zerbait idatz nezakeela, beti zerbait berria sortzeko ideiarekin. Egia da ez dela erraza osasun jargoia edo hizkera haurrei egokitzea, eta,

“Egia da ezinezkoa dela beldurra erabat desagertzea, baina pixka bat gutxitzea lortzen badut, nahikoa da”

horregatik, behar bereziak dituzten haurrekin lan egiterakoan piktogramak zeinen garrantzitsuak diren gogoratu nuen.

Beraz, esan daiteke zure bi bokazioak elkartzearen emaitza dela, ezta?

Halaxe da. Irakasle gisa, gaitasun bereziak dituzten haurrekin lan egitean konturatu nintzen zerbait berria uler dezaten piktogramak oso lagungarriak direla. Marrazkien bidez, egunean zehar egin behar dituzten zereginak azaltzen zaizkie, hala nola gosaltzea, dutxatzea edo eskolara joatea. Horrela, haiekin komunikatzeko aukeraz gain, haiengana hurbildu eta konfiantzazko harremana sortzeko aukera ematen du. Horregatik, baliabide horiek osasun arloarekin elkartzea erabaki nuen; izan ere, *osasungintzan* egin dudana ibilbidean, kirofanoaren barruan lan egiteaz gain, interbentzio baten aurreko eta ondorengo errealitatea ere ezagutu ahal izan dut.

Zergatik aukeratu zenuen kirofanoaren gaiari heltzea lehen ipuinean?

Hasieran ez nuen argi izan zer egin nahi nuen. Behin



haurrentzat idatzi nahi nuela jakinda, zergatik kirofanoa? Hori aukeratu nuen hori baitzen nik gehien ezagutzen nuen errealitatea, denbora asko eman nuen bertan eta asko markatu ninduen. Gainera, konturatu nintzen kirofanora sartu behar zuten ia haur guztiak gaizki sentitzen zirela, larrituta eta beldur handiz. Idazten hasi nintzenean oroitzapen horiek etorri zitzaizkidan burura eta horiek islatzen saiatu nintzen.

“Irakasle gisa ikasi nuen haurrek gauzak hobeto ulertzen dituztela marrazkien bidez azaltzerakoan”

Ipuina sortzeko garaian benetako istorioren batean inspiratu zara edo fikziotik jo duzu?

Egia esan, ez da ez bata ez bestea, bien arteko nahasketa da. Istorioa idazterakoan ez naiz esperientzia bakar batean zentratu, hainbat istoriotan oinarritu naiz prozesuaren fase desberdinak islatzeko. Gainera, alegiazko zati bat ere sartu nahi izan dut, ipuin honen bidez beldur hori arintzea baita nire ideia. Horretarako, jarraian gertatuko dena azaltzen saiatzen naiz. Era berean, fantasia erabiliz, inoiz egon ez diren mundu berri batera bidaiatzeko aukera izango dutela azaltzen diet, kirofanora lasaia eta gogotsuago joan daitezela.

Beraz, helburua beldurra uxatzea da?

Hori da. Egia da ezinezkoa dela beldurra erabat desagertzea, baina pixka bat gutxitzea lortzen badut, nahikoa da.

Argitaratu ahal izateko crowdfunding-aren formula aukeratu duzu. Zergatik?

Behin ipuin idatzia izan nuenean, liburua argitaratu nahi zuen argitaletxe baten bila hasi nintzen. Gaur egun oraindik argitaletxe batzuen erantzunik jaso gabe jarraitzen dut. Beste batzuekin hitz egitea lortu nuen, baina ez genuen elkar ondo ulertu, alde batetik royalty-ei dagokienez eta, bestetik, maila ekonomikoan, liburuak argitaratu ahal izateko kapital jakin bat izatea eskatzen dizute eta. Azkenean, bi arrazoiengatik aukeratu dut erabili dudana formula. Batetik, jendeak nire proiektuarekin laguntzeko aukera izan duelako. Era berean, ezaugarri horietako ipuin bat argitaratzeak oro har izan dezakeen interesa neurtzea ahalbidetu didalako, ez baita ipuin arrunta eta ez bainekien zenbaterainoko arrakasta izango zuen.

Zer harrera izan du proiektuak mezenasgo kanpaina abiarazi ondoren?

Erantzunak harritu egin nau ni eta jende asko, lagun batzuek uste baitzuten ez nuela nire helburua lortuko. Horregatik, oso pozik nago emaitzarekin, baina egia da ez dela erraza izan, eta ahalegin handia egin behar izan dudala.

Zein fasetan dago proiektua gaur egun?

Une honetan maketazio fasean dago, eta fase hori bi zatitan banatzen da: ilustrazioak eta ortografia zuzenketa. Ilustrazioak ipuinaren funtsezko zati bat dira. Eta testu gutxi duen arren,



Argazkia: Estudio Gover

euskaraz eta gaztelaniaz dago eta hori zuzendu egin behar da. Uste dut hiru hilabete inguru beharko direla hemendik aurrera hori egiteko. Ez dakit noiz argitaratuko den zehazki, baina esan didate dena ondo badoa 2024ko urtarrila inguruan izango dela. Hori besterik ez dago oraingoan.

Haurren ipuin batean ilustrazioak garrantzi handikoak al dira?

Hala da. Irakasle gisa ikasi nuen haurrek gauzak hobeto ulertzen dituztela marrazkien bidez azaltzerakoan. Idazten dudana guztia islatzea gustatuko litzaidake, baina ilustratzaileekin borrokan ari naiz, gauza batzuk ezin baitira islatu. Orain, zer sartu eta zer ez erabaki nahi dut. Baina argi daukat ilustrazioak liburu honen funtsezko zati bat izango direla.

Proiektuak ere ongintzarekin loturiko zatia du.

Idea horrekin guztiarekin hasi nintzenean, nire helburu nagusia laguntzea zen. Horregatik, jendeak liburua erosten duenean, lortutako onurak dohaintzan ematea da. Asmoa da liburua erosi duen jendeari liburuaren salmentarekin loturako irabaziak zertan inbertituko diren aukeratzeko bidea ematea. Horretarako, botoen zenbaketa egingo da, eta boto gehien jasotzen duen GKE edo ongintzazko kausara bideratuko dira.

Ba al duzu buruan libururen bat gehiago argitaratzea?

8 ipuin ditut pentsatuta, baina protagonistak eta istorioak desberdinak dira, hau da, Mateo ez da istorio guztien protagonista izango. Ideia horiek dagoeneko idatziak ditut, eta nire ideia da, dena ondo badoa, urtero liburu bat argitaratzea.

TENKAGAILU HIDRAULIKOAK NEURRIRA LEKUAN BERTAN



Aurreztu alferrikako joan-etorriak
Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa
Instalakuntzaren optimizazioa



info@solucionesindustriales.eu | (+34) 623 558 566 | www.solucionesindustriales.eu

GIPUZKOAKO MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEAK CASER RESIDENCIAL ANAKAKO EGOITZA BISITATU DU MINBIZIAREN AURKAKO IKERKETAREN MUNDUKO EGUNA DELA ETA

Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak Caser Residencialek Anakako egoitza bisitatu du Minbiziaren Aurkako Ikerketaren Munduko Eguna dela eta. Zehazki, irailaren 24an ospatzen da nazioarteko egun hori eta Caser Residencial Anakaren kasuan Minbiziaren Aurkako Ikerketaren Munduko egunaren harira antolatutako ekintza irailaren 21ean egin zen.

Caser Residencialek Minbiziaren Aurkako Elkartearekin harreman estua du. Hain zuzen ere, egoitzak, eguneko zentroak eta etxez etxeko zerbitzuak eskaintzen dituen Caser Residencial enpresa Minbiziaren Aurkako Elkarteak burutzen duen jarduerarekin konprometitu dago eta, hori dela eta, urteak daramatzate elkarlanean. Oraingoan, ekintza Caser Residencialek Anakako egoitzan egin da.


Irailaren 24an Minbiziaren Aurkako Ikerketaren Munduko Egunaren harira Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak kanpaina berezi bat prestatu du herritarrek izan daitezkeen elkarteak helarazi nahi duen mezuan protagonista. Horretarako, irailaren 21ean, ostegunean, Caser Residencial Anakako egoitzan kanpainaren leloa duen Photocall bat ipini zen. Photocall-ak ezaugarri berezi bat du, izan ere, zuriune bat nahita utzi da, argazkian atera nahi duten pertsonak bertan kokatzeko. Horrela, egoiliarrek Photocall-ean parte hartzeraz gona bidatu dituzte, zuriunea betez ekintzan parte hartzeko. Modu horretan, egoiliarrek argazkia atera eta irudiaren protagonistak izateko aukera izan dute, "Zuk, nik eta denok ikerketa gehiago behar dugulako" leloarekin batera.

Photocall-eko argazkiak ateratzeko polaroid edo uneko argazkiak zuzenean inprimatzen dituen argazki kamera bat erabili da. Horrela, argazkiak atera bezain laster inprimatu egin dira eta mural batean zintzilikatu dira. Muralaren emaitzak argi eta garbi irudikatu du Minbiziaren aurkako Ikerketaren Munduko Egunean guztiok parte hartzen dugula.



DENBORA-PASAK

Gurutzegrama: Ikasgaiak



Horizontal

- 3- Asko hitz egiten den hizkuntza globala ikasten dugu
- 5- Gizateriaren iragana aztertzen dugu ikasgai honetan
- 6- Mundu fisikoa eta haren fenomenoak arautzen dituzten legeak aztertzen ditugu.

Bertikal

- 1- Hemen ebazten ditugu zenbakizko ekuazioak eta problemak
- 2- Mundu osoko lekuak eta kulturak aztertzen ditugu arlo honetan.
- 4- Gorputza mugitu behar den ordua.

6 Hitz: Loreak

C	A	I	H	Q	K	R	A	B	E	L	I	N	H
Q	H	J	A	I	N	L	Q	W	P	J	C	S	B
B	W	B	Z	R	S	J	Y	S	C	B	N	A	E
T	W	B	X	V	R	M	D	A	X	Q	I	D	R
H	V	Q	C	G	Q	O	P	H	J	X	N	B	X
U	D	I	A	A	R	X	S	P	M	G	P	H	Q
A	L	U	D	R	E	S	Y	A	W	G	Q	O	E
A	C	X	I	D	P	K	W	G	A	L	R	R	J
B	X	E	B	E	N	G	I	N	Q	W	R	K	R
M	B	S	G	N	J	Q	V	L	R	D	E	I	V
U	X	A	P	I	P	V	K	Y	O	E	M	D	E
M	Z	E	D	A	U	B	W	Y	V	R	V	E	F
N	I	R	A	T	Z	E	V	O	T	M	E	A	M
I	I	K	I	P	P	F	W	A	T	Z	O	K	M

- Arrosa
- Gardenia
- Krabelin
- Ekilore
- Iratze
- Orkidea



BIDASOKO AEK IRUNGO EUSKALTEGIAREN 2023-2024 IKASTURTEKO ESKAINTZA BEREZIA

Doinua: Zazpiak oihal batetik / Mundu guztiak aditutzen du
Egilea: Aitor Errazkin Vicente

- 1.- Euskalduntzea ez dugu proba jakin bat gainditze hutsa C1a eta C2a baino gehiago baita hizkuntza ikaskuntzari zentzu batean egin nahi dionak bultzatzea EUSKALTEGIAN bi-biak ditu: AUKERA eta LAGUNTZA.
- 2.- Iaz bezala HIKA TALDEA badaukagu, beraz, adi! "Trebatu asmoz baldin bayabil, gurera hurbildu yari!" Azkenerako baietz bihurtu makina bat hikalari aurtengo uzta batzen bazaio iaz bildutakoari.
- 3.- EUS-KA-HAL-DUN-TZE TALDEAN ere begiak jarri ditugu euskarak jiran hamaika putre baitu inguru-minguru gutxiespenaz ohartu eta eskubideak helburu talde-lanean ahalduzko bidea egingo dugu.
- 4.- Euskal sortzaile baten izena galdetu eta... akabo! Literatura, bertso, antzerki... Goazen pauso bat harago! Hizkuntzak batzen duen herrian egin nahi bada abaro KULTURGINTZARI ARRETA jarritz ikas beharra dago.
- 5.- Proiektu, e-mail, ohar zein kartel punttu-punttuan uzteko taldea sortu gabe dugunik ez zenuen, ba, usteko! Ikastaro hau funtzionala da hainbat praktika tarteko ZURE LANEKO BEHAR-IZANEI EUSKARAZ ERANTZUTTEKO.
- 6.- ALFABETATZE TAILERRA indar betean nahi dugu noski bizitzan zehar mingain-arimak nahiz eta euskaraz busti araugintzatik urrun gertatu direnentzat da zehazki, aurrerantzean molda daitezzen hatxe, koma eta guzti.
- 7.- Gramatikatik abiatzeak sortzen digu asperdura hartatik MINTZA-TALDEEK pizten dute gurean lilura aztertzen dugu lotsarik gabe ateratzen zaigun hura eta norbere beharretatik jotzen dugu liburura.
- 8.- IDAZKETARI SORMENA gehitu eta nolako eztanda! Barrenak nori ez dio egin askotan horren demanda? Baina bakarrik saiatu eta... etsipen bide izan da. Horrela bizi izan baduzu, oraintxe da zure txanda!
- 9.- Zure helburu gure hizkuntza ikastea baldin bada OHIKO ESKAINTZAZ GAINERA AURTEN BERRIA' daukagu, hara! Jakin-minak koxk egin badizu etor zaitez AEKra eskarmenturik ez zaigu falta eta mintzatuko gara.

¹ Sarean kontsultatzen ahal duzu, "irungo aek eskaintza" bilatuta.



Erantzunak webgunean: www.irunero.eus/denborapasak/



KIROLAK

WASHIKEN KLUBEKO KIROLARIAK MUNDUKO KENPO KAI TXAPELKETAN LEHIATUKO DIRA

Washiken kluba kenpo-kai japoniar arte martziala praktikatzen duen klub bat da. Alain Isasa shihan-aren eskolen zuzendaritzapean, haur zein helduek hartzen dute parte. Irailaren 27tik urriaren 1era Tunisian jokatu den Munduko Kenpo-kai txapelketan lehiatuko da klubeko beste lau lehiakiderekina batera. Alain Isasak kenpo-kai arte martziala zertan datzan azaldu du.

Nola sortu zen Washiken kluba Irunen?

Orain dela 8 bat urte lagun bat eta ni elkartu ginen. Berak nirekin praktikatzen zuen Oartzunen eta, bera Irungoa zenez, Irunen talde txiki bat ateratzen saiatu ginen. Artiako lokal txiki batean hasi ginen eta jendeak geroz eta ilusio handiagoarekin praktikatzen zuela ikusi genuen eta azkenean Kirola gimnasioan bukatu genuen.

Zertan desberdintzen da kenpo-kaia beste arte martzialatik?

Kenpo-kaia arte martzial tradizional bat da eta Japonian du jatorria. Estetikoki karatearen antza handia du, kimono txuri eta arinarekin. Judoan berriz, kimonoak lodiagoak dira eta heltzeko prestatuagoak daude. Estetikoki karatearekin lotu arren, oso ezberdina da. Ezagutu dudana arte martzial konpletoena da katak, borroka, autodefentsako teknikak, armak, akrobaziak eta beste hogeita hamar mila gauza lantzen baititugu. Uste dut horregatik ez dela hain ezaguna, arte martzial hau menderatzeak ahalegin handia eskatzen duelako.

Zuen klubean helduekin eta haurrekin lan egiten duzue, ezta?


Haurrengan motrizitatea lantzea bilatzen dugu batez ere, poliki-poliki konfiantza lortzeaz eta indarra irabazten joateaz gainera. 12 edo 13 urtetik aurrera, lehiaketari garrantzi handiago ematen zaio, borroka gehiago gustatzen baitzaie adin horietatik aurrera. Helduen kasuan, armaketa sistemak lantzen ditugu, arte martzialaren alderdi hori atseginagoa zaielako. Kirol hau asko moldatzen da praktikatzailerak, beste kiroletan

gertatzen ez den zerbait, hain zuzen ere.

Hala ere, lehiaketak kirolarientzat akuilu motibagarriak dira, ezta?

“Lehen aldiz Munduko Txapelketan lehiatuko direnei aholkatu diet ahal duten guztia ematea”

Bai, batez ere, adin jakin bateko kirolarientzat eta beraiengatik balitz astebururo izango genuke lehiaketaren bat. Maila ezberdinetako lehiaketetan aritzen gara, hau da, Gipuzkoan, Euskadin, Espainian, Europan eta Munduko Txapelketan.



Orain, hain zuzen ere Munduko Txapelketaren prestaketetan murgilduta zaudete.

Bi astetxo geratzen zaizkigu. Aurten prestaketen erdian uda izan dugu tamalez, eta horrek, beraz, prestaketa apur bat moztu digu. Hortaz, azkeneko hilabeteko prestaketa oso garrantzitsua izango da. Azken asteetan lan teknikoan zentratuko gara batez ere, gauzak errepasatzeko.

Klubeko zenbat kide lehiatuko zarete bertan?

Gure klubetik 5 parte-hartzaile goaz: Ane Amunarriz, Ekhi Lekuona, Maiana Lekuona Asier Cuende eta ni neu. Horretaz gain, Eneko Lekuona arbitroa ere gurekin etorriko da.

Jada Munduko Txapelketan lehendik ere parte hartutakoak zarete.

Ni izan ezik, gainontzekoentzat beraien lehen Mundu Mailako Txapelketa izango da. Sekulako ilusioarekin daude, baina urduritasun puntu horrek kalterik ez egitea espero dugu. Alde horretatik, apur bat urduri nago eta ikasi duten guztia lehiaketan erakutsi ahal izatea espero dut.

Zer helbururekin zoazte Munduko Txapelketara?

Lehen aldiz Munduko Txapelketan lehiatuko direnei aholkatu diet ahal duten guztia ematea. Izan ere, niri gertatu izan zait, txapelketatik itzuli eta zalantza guztiak agertzea. Hori ez gertatzeko aukera bakarra dena ematea da. Irabaztea edo galtzea berdin du, baina okerrena da zalantzekin geratzea. Ez dugu bilatzen domina, ezta eliteko lehiakideak izatea, baina iristen bada pozik jasoko dugu.

Nola antolatzen da Munduko Txapelketa?

Kenpo-kaiko txapelketan modalitate ezberdinak daude: kata, autodefentsako teknikak eta borroka. Modalitate horiek adinen arabera eta gerrikoaren mailaren arabera banatzen dira. Oraingoan nik uste modalitate guztietara aurkeztuko garela.

Txapelketaren ostean, denboraldi berriarekin hasiko zarete?

Bai, hori da. Orain entrenatzen hasi gara, batez ere, Munduko Txapelketan lehiatuko direnek txapelketa prestatzeko aukera izan dezaten. Guk normalean ikastaroa urrian hasten dugu. Ea txapelketatik emaitza onekin itzultzeko aukera dugun.

Maila altuko txapelketetan lehiatuz kenpo-kaia ezagutaraztea lortuko da, noski.

Bai, guztiz ados. Nik lehiakide bezala Munduko Txapelketak irabazi izan ditut eta egia da horrelako lorpenek kirola ezagutarazten laguntzen dizutela. Orain talde hau indartu nahian gabiltza eta ea emaitza txukunen bat ekartzen dugun horretan laguntzeko. Nik uste baditugula aukerak, maila onarekin goaz.

Lehiakide berrientzat zure esperientzia lagungarria izango da,

ezta?

Bai, nire adinarengatik, nire lehiakide garaia amaitzen ari da. Orduan, txapelketa honetan nire helburua gainontzekoak babestea eta laguntzea izango da. Hortaz, aurten nire lana urduri daudenean lasaitzen laguntzea izango da, nire esperientziatik aholkuak emanez. Lehen aldiz Munduko Txapelketara joan nintzenean oso galduta egon nintzela gogoratzen dut, beraz, ondoan lagunduko zaituen norbait izatea oso lasaigarria izan daiteke.

Eсандako guztiak erakusten du kenpo-kaia oso kirol konpletoa dela.

Normalean arte martzialak oso kirol konpletoak dira. Ariketa fisiko bat baino zerbait gehiago da, ariketa mentala ere eskatzen du eta burua hotz mantentzea garrantzitsua da. Buruaren kontrola galtzen baduzu gorputza kontrolatzea ezinezkoa da. Lasaitasuna, beraz, ezinbestekoa da emaitza on bat lortzeko.

“Ez dugu bilatzen domina, ezta eliteko lehiakideak izatea, baina iristen bada pozik jasoko dugu”



all4móvil
Asesoría en telefonía y comunicación

LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN

Puiana kalea 30 behea | 652 11 85 97 / 843 63 08 80 | all4movil@all4movil.com | www.all4movil.com

EZKONTZA
AZOKA

www.losmunecosdelatarta.es



14-15

· URRIA ·
FICOPA-IRUN
PARKING DOHAN





KIROLAK

TXINGUDI ESKUBALOIA KLUBEKO NESKA-MUTILAK DENBORALDI BERRIAREN ATARIAN DAUDE

Iraila kirol modalitate askoren denboraldi hasiera izan ohi da eta hori da eskubaloia kasua ere. Txingudi Eskubaloi klubeko senior taldeko Mikel Bartolomek eta Maialen Unanuek denboraldiaurrea nolakoa izan den eta denboraldiko helburuak zeintzuk izango diren errepasatu dute.

Dagoeneko dena martxan duzue denboraldi berria hasteko?

Maialen: Jada hilabete luze daramagu entrenatzen, denboraldiaurrea prestatzen. Asteburu honetan lehen partidua izan dugu, jada dinamika berreskuratzen hasteko. Hurrengo asteburuan ere lagunarteko beste partidua izango dugu Urnietan. Ilusio handiarekin hasten dugu denboraldi berria.

Dagoeneko 4 urte daramatzagu taldean, kluba aurrera doa. Orain neska senior asko gara eta lehiaketara oso enfokaturik gaude.

Mikel: Guk ere jada hilabete inguru daramagu entrenamenduekin. Aurreko asteburuan Beran egon gara, entrenamenduak prestatzen eta partidua jokatzeko, prestaketekin jarraitzeko. Uda ondoko itzuleraren ostean sentsazio oso onak izan ditugu.

Zer sentsazio izan duzue jokaturako lehen lagunarteko partiduetan?

Maialen: Azkenean denboraldia entrenamendu eta lagunarteko partiduez osatzen da, baina denak lehiaketara begira egiten ditugu. Gainera, aukera bikaina da gure lagunarteko harremanak sendotzeko eta talde sendoago bat sortzeko.

Mikel: Guk emaitza onak lortu ditugu, beraz, oso pozik gaude horrekin. Izan ere, lehengo urtea ez zen oso ona izan guretzat. Beraz, aurtengo hasiera ona izaten ari dela ikustea oso pozgarria da guretzat. Espero dugu denboraldi hasieran izandako sentsazio on hau denboraldi guztian zehar mantendu ahal izatea. Gure ustez garrantzitsua da hasiera on bat izatea.

Zein da zuen taldeetan denboraldi honetarako helburu nagusia?

Maialen: Aurretik aipatutakoaren harira, dagoeneko klubak 4 urte ditu. Oraindik klub gaztea bada ere, jada oinarri sendo bat duela esan daiteke. Klubaren zuzendaritzak eta baita entrenatzaileek ere gogor lan egin dute hori lortu ahal izateko. Urteetan zehar egindako lanketak bere emaitzak eman ditu eta

“Beti gure onena ematen saiatuko gara ahalik eta partidu gehien irabazteko”

*Maialen Unanue,
Txingudi Eskubaloi
jokalari seniorra*

orain lehiaketaren emaitzetan guztiz zentratuak gaude.

Mikel: Guk ere uste dugu aurreko talde bezala sendotuagoak gaudela, eta beraz, kategoriaz igotzen saiatuko gara, sendotasun hori baliatuta.

Maialen: Gainera, aipatu nahiko



“Irabazten dugunean asko pozten gara, baina elkarren artean dugun laguntasunak benetan harrotasuna sentiarazten digula esan dezakegu”

*Mikel Bartolome,
Txingudi Eskubaloi
jokalari seniorra*

genuke denboraldiaurrean zehar nesken senior taldean lesio nahiko larri bat izan dugula. Izan ere, Maria gure taldekide eta lagunak lotailu gurutzatua hautsi du. Hemendik jakinarazi nahiko genioke denboraldiko gure garaipen eta momentu polit guztiak bereak ere izango direla.

indartsu bat izatea eta neskek eta mutilek txikitatik jokatzeko aukera izatea.

Mikel: Maialenek esandakoarekin ados nago. Zaila da horrelako zerbait lortzea pil-pilean dagoen futbola bezalako kirol baten aurrean. Azkenean, zaletu asko ditu eta edonon ikus ditzakezu kirol horrekiko erreferentziak. Hala ere, pixkanaka klubera jende gehiago eta, bereziki, emakume gehiago hurbiltzen ari direla nabaritu dugu. Askok gustatzen zaigu klubean jende berria hastea.

Klubak atal inklusiboa ere badu, ezta?

Maialen: Esan beharra dago klubaren zuzendaritzatik ahalgin handia egiten dutela ahalik eta klub zabalena eta anizkunena izatea eta mundu guztiak bertan berarentzako tokia aurkitu dezan. Horregatik, senior jokalariek askok egiten dituzte entrenamenduak talde inklusiboarekin, esaterako, Mikelek.

Mikel: Talde inklusiboko jokalariek beste taldeen aurka jokatzeko gain, gure klubeko jokalarien aurka ere aritzen dira. Beraz, noizbehinka elkarrekin jolasteko elkartzen gara eta horrek erakutsi digu benetan ez dagoela oztoporik edonoren aurka jokatzeko, izan ere, klub bereko jokalariek izanda lasai asko aritu gaitezke batzuk besteen aurka.

Helburu orokorra beraz, denon artean familia handi bat osatzea da.

Maialen: Bai. Balioetan oinarritzen den kluba da, nahiz eta lehiaketa beti buruan eduki. Egungo emaitza orain arte hori lortzeko lan egin duten guztiei esker eskuratu da eta eskertuta gaude horri esker kirolaz disfrutatzen auzerako aukera dugulako.

Mikel: Mutil zein nesken kasuan beti lehiatu eta irabazi nahian gabilta, baina garrantzitsua beti izango da gure artean ondo moldatzea eta giro ona izatea. Garrantzitsua da denok taldea babesleku moduan ulertzea, arazorik izatekotan bertan lasai hitz egin eta elkarren artean lagundu ahal izateko. Irabazten dugunean asko pozten gara, baina elkarren artean dugun laguntasunak benetan harrotasuna sentiarazten digula esan dezakegu.

Lehen partidua noren aurka jokatu duzue eta zer emaitza espero duzue?

Maialen: Gu hurrengo txapelketari begira jarri gara dagoeneko. Lagunarteko txapelketa bat bada ere, garrantzi handia du. Egia esan, berdina zaigu noren aurka hasiko dugun liga, helburua beti berdina izango delako. Beti gure onena ematen saiatuko gara ahalik eta partidu gehien irabazteko.

Mikel: Guk denboraldiko azken lagunartekoa Hondarribiko taldearen aurka jokatu dugu. Urria hasierarekin jada liga hasiko dugu Donostian Egiaren aurka eta apur bat urduri gaude horregatik, beraiek ere, gu bezala, kategoriaz jaitzi direlako. Beraien aurka denboraldia nola hasten den ikusiko dugu, beraien aurka borrokatu beharko dugulako igoera lortzeko.

Seniorrez gain, zuen klubean kategoria baxuagoak daude, baina klubaren proiektuarentzat ere oso garrantzitsuak izango dira, noski.

Maialen: Hori da. Hasieran kluba senior kategoriako taldeekin bakarrik hasi zen eta ez da gutxi, ez baita erraza klub bat hasteko taldeak osatzea eta are gutxiago nesken kasuan. Hori lortzeko apustu oso indartsua egin zen klubean, baina nik uste oso emaitza onak ematen ari dela. Askotan beste klubak ikusten ditugunean inbidia ematen digute, neska txikiak ikusten baititugu jolasten eta guri ere gustatuko litzaiguke Txingudi Eskubaloi horrelako beste klub bat izatea. Hau da, harrobi



VENTANAS ARAMBURU

ZURE LEIHO-FABRIKATZAILEA IRUNEN - 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU SEKTOREAN.
LEIHO, ATE, BARANDA, PERTSIANA ETA TOLDOAK INSTALATZAILE ONENEN BERMEAREKIN

Gabiria Kalea 42, Irun | (+34) 943 62 22 57 | info@ventanasaramburu.com | www.ventanasaramburu.com

Bidasoa Formación

HIZKUNTZAK (INGELESA, FRANTSESA, EUSKARA) | ESKOLA LAGUNTZA
TALDE TXIKIAK ETA BANAKAKO KLASEAK | MATRIKULA DOAN

Eliza Kalea 4 (San Juan plazan) | (+34) 688 88 95 47 | info@bidasoaformacion.es | www.bidasoaformacion.es



BETHI GAZTE

GABARRARI IZENA ERAMANGO DU IRUNGO ARETO FUTBOLEKO KLUB BERRIAK

Denboraldi honetatik aurrera Irunek areto futboleko klub bat izango du. Irun Futsal Gabarrari kluba Gabarrari plazako gazte talde batek sortu du, eta, horretarako, oso lagungarria izan da San Martzial kirol klubak emandako babesia. Mikel Artetxe da klubeko presidentea eta, Hodei Bastida zuzendaritzako kide eta jokalariekin batera, proiektua zertan datzan azaldu dute.

Nola bururatu zitzaizuen hirian areto futboleko klub bat sortzea?

Hodei: Ezerezetik sortutako ideia izan zen. Gu txikitatik gara lagunak, auzo berean bizi baikara, Belaskoenean, eta Gabarrari plazan jolasteko elkartzen gara. Egun batean elkartu ginen eta areto futboleko jokatzeko gustatuko litzaidakeela esan nion, eta horrela proposatu zidan gure kluba sortzea.

Mikel: 2015ean egin genuen lehen saiakera, baina garai hartan oso txikiak ginen. Idatzi bat helarazi genion garai hartako udaleko plaza eremuan genuen ezagun bati, Irunen areto futboleko talde bat sortzeko eskatuz, baina garai hartan ez genuen ezer lortu.

Klub honen sorrerarekin Irunek orain arte ez zuen kirol modalitate bat izango du, ezta?

Mikel: 80ko hamarkadan Irunen areto futboleko klub bat bazegoela entzun dugu. Baina egia da gaur egun ez zegoela horrelako klubik hirian, eta jendeak ere eskatzen zuen zerbait zen. Irunen 6 edo 7 futbol talde dauden bitartean, areto futboleko talderik ez dago eta pena ematen duen zerbait da. Jende askori berdin izan dakioke, baina gustatzen zaigunontzat eta haztea nahi dugunontzat garrantzitsua da horrelako talde bat egotea Irunen.

Klub bat zeretik hastea zaila izango da, noski.

Hodei: Egia esan, jokalariek bilatzerakoan nahiko erraza egin zaigu erregional mailan lehiatzeko prest dauden jokalariek aurkitzea. Hala ere, gazteekin zailagoa izaten ari da. Jende asko ari da jada futbol 11ko taldeetan jokatzeko eta etapa hori amaitu nahi du.

Mikel: Nabaritu dugu adin horietan zorrotzagoak direla,

“Helburu nagusia igoerako play-offean sailkatzea da”
Mikel Artetxe, presidentea eta entrenatzailea

baldintza hobeak bilatzen baitituzte. Gu hasiberriak gara eta bi aste daramatzagu erregional mailakoekin entrenatzen. Oraingoz Mendeluko areto futboleko

zelai batean ari gara entrenatzen, aire zabalean eta erregionalakoa dena ematen dute entrenamenduetan. Hala ere, 15 edo 16 urteko gazteak ez daude hor entrenatzeko prest. Gazteen talde bat ateratzea interesatzen zitzaigun, kluba pixkanaka hazten joango dela ziurtatzeko. Kontuan izan behar da Gipuzkoan areto futbola ez dela zaletasun handiko kirola, Murtzian edo Bartzelonan gertatzen den bezala. Ez dago eskola edo erreferentziarik, eta hori garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Horrela, ikasi nahi dutenek ohiko futbola baino aukera gehiago izango dituzte.

Lehen denboraldia kategoria erregionalarekin hasiko duzue, beraz.

↑ Argazkia: Gabarrari plaza (Iturria: Irun Futsal Gabarrari).



IRENE LAVÍN

MICROPIGMENTACIÓN

MIKROPIGMENTAZIO ESTETIKO ETA PARAMEDIKOA GIZON ETA EMAKUMEETAN

Jostun Kalea 9, Irun | (+34) 682 34 85 78



↑ Argazkia: Irun Futsal Gabarrari taldea entrenamendu baten ostean. (Iturria: Irun Futsal Gabarrari).

Mikel: Bai, oraingoz kategoria erregionalarekin hasiko gara. Etorkizunean gure asmoa gazte taldeak, kadeteak edo emakumezkoen talde bat ateratzea da. Aurten ere saiatu gara, baina ez da posible izan. Espero dugu etorkizunean posible izatea.

Zein da entrenamenduetarako jarraitzen ari zareten dinamika?

Mikel: Oraingoz, astean bi egunetan ari gara entrenatzen, eta horrela mantendu nahi dugu denboraldi osoan. Gure liga urrian hasten denez, denboraldiaurrean agian astean hiru entrenamendu egingo ditugu. Eromen hutsa izaten ari da entrenatzeko tokiak aurkitu ahal izatea, eta gaur egun tokiak bilatzen jarraitzen dugu. Irungo Udala gauzak errazten saiatu da, baina dena oso kolapsatuta dago. Horregatik, ikastetxeekin harremanetan jarri gara, haien instalazioetan entrenatzea posible ote den ikusteko. Ekonomiari dagokionez, egoera estu batean gaude, eta denek eskatzen digute dirua.

Oraindik jendea garaiz al dago izena emateko?

Mikel: Oraingoz denboraldia urriaren 22ra arte ez denez hasten jendea probatzera gonbidatzen jarraitzen dugu. Ordura arte adiskidetsu jokatu dugu. Horrela, interesatuak gurekin harremanetan jar daitezke. Entrenatzaile bat aurkitzea ere interesatuko litzazuke, ni saiatzen naizen arren dena irakasten, baina ezinezkoa zaidalako dena iristea. Entrenatzaile gisa, uste dut pertsona helduago bat behar dugula, taldea gidatzeko gai izango dena. Jende askok badaki futboleko jokatzeko, baina areto futbola oso kirol zaila da, askoz teknikoagoa baita eta erabakiak milisegundotan hartzean datza. Areto futboleko baloia oso txikia da eta ez du botatzen oso astuna delako. Pistan, atezainez gain, talde bakoitzean 4 jokalarik jokatzeko dute eta oso leku txikian jokatzeko da. Oso kirol polita da, baina taktika eta teoria ugari ditu atzetik.

Zer helburu dituzue lehen denboraldirako?

Hodei: Helburua mailaz igotzen saiatzea da, baina errealistak ere izan behar dugu. Orain arte bertan lehiatzen hasten gara eta alde guztietatik gaituzte; beraz, oraindik nahikoa entrenatu behar dugu. Indibidualki jende nahiko ona dago taldean eta gogo handiarekin, orain denok batera jokatzeko ikasi behar dugu.

Mikel: Hori da, azkenean gure helburu nagusia mailaz igotzea da eta posible ikusten dugu plantillan maila ona dagoelako. Baina egia da ere talde oso onak daudela. Ahalik eta ondoen entrenatzen ahaleginduko gara, irabazten saiatzeko, eta igotzen ez bagara, gutxienez ahalik eta ondoen egiten saiatzeko. Helburu nagusia igoerako play-offean sailkatzea da.

Jende asko al zarete klubean?

Mikel: Gutxi gorabehera oraingoz 13 jokalarik izango gara. Areto futboleko talde bat 12 jokalarik inguruk osatzen dute, eta ez dugu jende gehiegi erakarri nahi izan gero jokatu gabe gera ez daitezke. Zuzendaritzan 5 gaude, eta jokalariek ere saiatzen dira ahal duten guztian ekarpenak egiten. Babesleek ere asko lagundu digute eta horregatik uste dugu gure ideia gustatzen ari dela.

Kirol jardueraz gain, kirolaren bidez balioak ere landu nahi dituzue, ezta?

Mikel: Kirolak nor bere burua garatzeko balio duela uste dugu, barruan zein kanpoan. Talde-lana da, eta horrek gauza asko eskatzen ditu. Oso kirol gogorra denez, huts egitean gauza asko ikasten dira. Deskonektatzeko ere balio du, oso giro ona baitugu. Haurrek balioak eskuratzeko modu garrantzitsua iruditzen zaigu.

Zeintzuk dira zuen epe luzeko helburuak?

Hodei: Gure helburua eskola bat eta kategoria baxuagoak sortzea da. Une honetan nahiko urrun gaude, eta nahiko zaila izango litzateke, zaila gertatzen ari baitzaigu talde bakar batentzako zelaia lortzea. Etorkizunean sortuko diren kirol pabiloi berrietan guri lekua egitea espero dugu.

Mikel: Ea maila altuagoetara ere iristen garen. Hori lortzeko ahalegin guztiak egingo ditugu. Baina, lehenik eta behin, hemendik 5 urtera ikusi behar dugu nora iritsi garen, eta, horretarako, gutxienez lortu dugu areto futboleko erreferentzia bat egotea Irunen.





CBA Kultur Gunea
 943 50 54 44
 igazte@irun.org
 607 77 11 73
 www.irun.org/igazte

KONEKTA ZERBITZUAREN ITZULERA



Konekta zerbitzuak abian jarri du ikasturte berria, Irungo gazteei beren interesetatik abiatzen diren jarduerak edo proiektuak garatzeko baliabideak eta laguntza eskaintzeko asmoz. Bere ekimenei laguntza emateaz gain, **16 eta 25 urte bitarteko** gazteen parte-hartzea sustatzeko jarduerak proposatuko ditu.

Gauzak horrela, 15-18ko espazioa programa mantenduko da, Martindozenea Gaztelekuarekin batera, ostiral eta larunbatetan **15 eta 18 urte bitarteko gazteei irekita** egongo da 17:00etatik - 21:00etara Martindozenea Gaztelekuko 1. solairuan.

Konekta zerbitzuarekin harremanetan jartzeko, **WhatsApp (656794372)**, **emaila (konekta@irun.org)** edo **Instagrama (@gazteartean_irun)** erabil daitezke. Gaztea bazara eta ekimen edo proiektu bat egiteko gogo baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, zure zain gaude!



Luis Mariano kalea 12 | (+34) 943 63 93 01 | irun@folder.es | www.folder.es

BELDURREZKO ESCAPE ROOM-A



Urriaren **31n**, asteartean, **beldurrezko escape-room** bat egingo dute **Martindozenea Gaztelekuan** Halloween edo gau beltza egunarengatik. Escape rooma girotua izango da: gela apaindua egongo da eta mozorrotutako pertsonaiak ere egongo dira.

Aukeratutako gaia zonbiak dira. Bi taldek aurrez aurre jolastuko dute taldearen biziraupena bermatzeko zonbien aurrean. **Ordubeteko iraupena** izango du jolas bakoitzak eta 3 txanda antolatu nahi dituzte: lehena 17:30etik 18:30era, bigarrena 18:30etik 19:30era eta 19:30etik 20:00etara.

Doako ekintza izango da. **Izen emateak** beti bezala **gaztelekuan bertan** edo **Gaztelekuaren Instagram kontuaren (@gazteleku_martindozenea)** bidez egingo da.

GAZTEPRIX-A



Animatu zaitez **urriaren 21ean**, larunbatean, egingo den **GaztePrix-ean** parte hartzera. **17:30etatik aurrera** egingo da GaztePrix-a **Artiako futbol zelai ondoan**. 5 talde egingo dira eta hainbat froga gainditu beharko dituzue. **12-17 urte** badituzu edo urte honetan betetzen baldin badituzu, **eman izena whatsapp bidez 681 946 798** telefono zenbakira idatziz.



KULTURA

GIRABIRA TXIKIMUSIKA



Girabira programak, urtero bezala, denboraldi amaierako emanaldi berezi bat prestatu du. Parkeez familian gozatzeko sortu zen ekimena eta, denboraldia amaitzeko, «Txikimusika» jarduera antolatu da. Gainera, parte-hartzaileei parkean piknik bat egiteko gauzak eramatea proposatzen zaie.

Eguna: Urriaren 8an, igandean.
Non: Mendibil parkean.
Ordua: 12:30ean.

BISITA GIDATUA UDALETXEAN



Irungo Udalak hiriko **udaletxea barrutik ezagutzeko bisita** gidatuak antolatu ditu. Ekintzan parte hartu ahal izateko beharrezkoa izango da Irungo turismo bulegoan aurretiaz izena ematea.

Eguna: Urriaren 28an, ostiralean.
Ordutegia: 11:00etan euskaraz eta 12:00etan gaztelaniaz.
Abiapuntua: San Juan Harri Plaza.
Telefonoa: 943 02 07 32

KONTZERTUA "CHICA SOBRESALTO"



Musikaren munduan Chica Sobresalto izenez ezaguna den **Maialen Gurbindok kontzertua** eskainiko du Irunen. Musikariak 2020ko Operación Triunfo telebista saioan parte hartu zuen. Kontzerturako sarrerak Irungo Udalaren sarreren salmentarako plataformaren bitartez lortu daitezke.

Eguna: Urriaren 21ean, larunbatean.
Non: Amaia Kultur Zentroan.
Ordua: 19:00etan.
Prezioa: 10 eta 15 euro artean.

ANTZERKI MUSIKALA



Carmen Sevillak eta Luis Marianok bikote artistiko ezaguna osatu zuten, eta hiru film arrakastatsutan parte hartu zuten: "El sueño de Andalucía", "Violetas imperiales" eta "La bella de Cádiz". Txalo Produksioak ekoiztetxeak beraien arteko harremana eta garaiko testuingurua islatzen dituen antzerki musikal sortu du. Sarrerak Irungo Udalaren sarreren salmentarako webgunearen bitartez lortu daitezke.

Eguna: Urriaren 27an, ostiralean.
Non: Amaia Kultur Zentroan.
Ordua: 20:00etan.



2023 2026 BABESLETZA

Taldearen **futbol egokituaren eta oinarritzko futbolaren** proiektuan kolaboratu

Enpresa bat baduzu eta klubaren familiako kide izan nahi baduzu, **zure zain gaude**



Ama Birjina Mirarietakoa Kalea 7, Irun

943 96 99 12

patrocinios@cdsanmarcialirun.com

cdsanmarcialirun.com

[X @CDSanMarcial1](https://www.instagram.com/cdsanmarcial1)

[@cdsanmarcial.irun](https://www.instagram.com/cdsanmarcial.irun)